

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA DEBAGOIENEAN



BADATOR LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA!

- **NORENTZAT?** Ikasle, langile eta langabetuentzat. Formazio edota lan bila dabilenarentzat.
- **ZER EGONGO DA?** Lanbide Heziketako ikastetxeak, formazio akademiak, hainbat enpresa eta enplegu zerbitzuren informazio stand-ak, hitzaldi eta tailerrak, eta makina eta esperimenduak.
- **ZERTARAKO?** Lanbide Heziketaren berri eman eta eskualdeko formazio-aukerak plazaratzeko.
- **APIRILAK 19 eta 20an, Kulturaten, Arrasaten**

Debagoieneko Lanbide Heziketa ZIFRATAN:

- 7 ikastetxe
- 11 familia profesional
- 32 titulazio
- 1.000 ikasle baino gehiago

LASTER BERRI GEHIAGO!

Debagoienez guztira 7 ikastetxe desberdinek eskaintzen dituzte Lanbide Heziketako ziklo formatiboak. Arrasate, Bergara eta Oñatin bina zentro daude eta Aretxabaletan bakarra.


Guztien artean 11 familia profesionaleko 25 titulu desberdin eskaintzen dituzte, eskaintza aberatsa beraz. Hainbat titulu (6 konkretuki) zentro batek baino gehiagok eskaintzen dituzte.

ESKUALDEKO IKASTETXEEN ARTEAN 11 FAMILIA PROFESIONALETAKO 25 TITULAZIO DESBERDIN ESKAINTZEN DITUZTE.

ERDI MAILAKO ETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

Eskualdean eskaintzen diren zikloetatik **12 Erdi-mailakoak dira, eta 20 Goi-mailakoak**. 5 familia profesionalean Erdi-maila eta Goi-mailako eskaintza dago, eta horrek aukera ematen du ikasketei jarraipena emateko. 4 familietan Goi-mailako zikloak soilik aurki daitezke eta Erdi-mailako zikloak bakarrik bi familietan.

Eskaintza zabalena Fabrikazio Mekanikoko familian ematen da (6 titulu), Elektrizitate eta Elektronikan (3 titulu) eta beste horren beste Administrazio arloan. Baina badago eskualdean beste familia profesional batzuetako heziketa zikloak egiteko aukera ere, grafikoan ikusi daitekeenez (zirkulu txikian Erdi-mailako zikloak eta kanpoko zirkuluan Goi-mailakoak).



2011-12 ikasturtean 607 matrikulazio berri izan dira eskualdeko ikastetxeetan. Guztira, **Debagoienez 1051 ikasle daude Lanbide Heziketa ikasten**, horietatik ia %60a goi mailako zikloetan eta gainontzekoak, erdi-mailako zikloetan.

Atzekaldeko taulan laburtzen da eskualdeko zentrozen eskaintza maila eta familiara.

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA DEBAGOIENEAN

Herria	Ikastetxea	Maila	Familia	Titulua
Arrasate	Goi Eskola Politeknikoa	Goi mailakoak	Informatika	Informatika sistemen administrazioa
			Fabrikazio mekanikoa	Proiektu mekanikoen garapena Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
			Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua	Industri-ekipoen mantenimendua
			Elektrizitatea eta elektronika	Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak Sistema elektroteknikoak eta automatizatuak
	Arizmendi Ikastola	Erdi mailakoak	Osasuna	Erizaintzako zaintza osagarriak
		Goi mailakoak	Gorputz- eta kirol-ekintzak	Gorputz eta kirol ekintzen animazioa
Bergara	Mariaren Lagundia	Goi mailakoak	Gizarte- eta kultur-zerbitzuak	Haur Hezkuntza Gizarte Integrazioa
			Erdi mailakoak	Administrazioa
	Elektrizitatea eta elektronika	Instalazio elektriko eta automatikoak		
	Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa		
	Miguel Altuna Institutua	Goi mailakoak	Administrazioa	Administrazioa eta finantzak
			Fabrikazio mekanikoa	Proiektu mekanikoen diseinua Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
			Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua	Industri-ekipoen mantenimendua
	Oñati	ETEIO	Goi mailakoak	Administrazioa
Merkataritza eta marketina				Merkataritza-kudeaketa eta marketina
Zuazola-Larraña		Erdi mailakoak	Gorputz- eta kirol-ekintzak	Landa inguruneke gorputz eta kirol ekintzen gidaritza
			Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua	Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektronikoa
Aretxabaleta	Aretxabaleta Lanbide Eskola	Erdi mailakoak	Fabrikazio mekanikoa	Mekanizazioa
			Osasuna	Erizaintzako zaintza osagarriak
			Ibilgailuen Mantenimendua	Ibilgailu Automobilen Elektromekanika Karrozeria
		Goi mailakoak	Fabrikazio mekanikoa	Soldadura eta galdaragintza
			Fabrikazio mekanikoa	Metal-eraikuntza

APIRILAK 19 eta 20an KULTURATEN

GOIAZI 2012
DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAREN AZOKA

